



JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazioako Zuzendaritza

Ebazpena, Justizia Administrazioako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita hutsik dauden lanpostuen eta langileen borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda, betiere Justizia Administrazioako kidego orokorretako funtzionarioak Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetakako bulego judizialetakako, udalerriko justizia-bulegoetako nahiz horien elkarteetako eta erregistro zibilaren bulego orokorretako lanpostu berrietara egokitzeko prozesuaren baitan

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2025eko uztailaren 31ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetakako funtzionarioak adskribatzeko irizpideak, eta egokitze-prozesuaren garapena ere bai.

Ebazpen horren 5. artikuluan ezartzen denez, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutakoen zerrenda argitaratuko du, bai eta eskainiko diren plaza hutsak ere, EIZU justiziako langileen atarian eta Intranet justizia.eus-en.

Artikulu horrek aurreikusten duenez, borondatezko berrantolaketan, prozesu honetan beren borondatez parte hartzen duten langileek aurreko faseetan hutsik geratutako lanpostu guztiak eskuratu ahal izango dituzte.

Esleipenean, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Izapidetze Zerbitzu Erkidean berrantolatzerakoan honako hauek izango dute lehentasuna:
 - a. ZULUPetan behin betiko destinoa duten funtzionarioak, salbu eta emakumearen aurkako indarkeriako eginkizunetan dihardutenak edota Erregistro Zibileko eginkizunetan diharduten langileak.
 - b. Zerbitzu Erkide Oroker eta Betearazpenekoaren Betearazpen Atalean behin betiko destinoa duten funtzionarioak.
2. Aurreko faseetan destinoa lortu ezin izan dutenak:
 - a. Lehiaketa espezifikoa parte hartu bai, baina esleipendun izan ez diren langileak.
 - b. Berrets daitekeen arren, proposatutako berrespen-fasean lanposturik eskaini ez zaien langileak, ez dituztelako inongo baldintzak betetzen.
3. Udalerrian behin betiko destinoa duten gainerako langileak.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT

1. artikulua.- Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Durango, Gernika-Lumo, Getxo, Irun eta Tolosako barruti judizialetakako langileen borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitu diren karrerako funtzionarioen zerrenda argitaratzea (I. Eranskinean).

Berriazko lehiaketan destinorik lortu ez duten pertsonak zehazten dira, bai eta, berresteko moduan izan arren, lanposturik proposatu ez zaien pertsonak ere, ez dituztelako inongo baldintzak betetzen.

2. artikulua.- Amurrioko, Azpeitiko, Balmasedako, Bergarako, Durangoko, Gernika-Lumoko, Getxoko, Irungo eta Tolosako barruti judizialetan akoplamendu-prozesuaren baitan langileak borondatez berrantolatze prozesuan eskaintzen diren lanpostuen zerrenda argitaratzea (II. Eranskinean).

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
r-humanos@euskadi.eus



3. artikulua.- Funtzionarioek abenduaren 4tik 9ra bitartean, biak barne, egin beharko dute plaza-eskaera, jarraian adierazten den estekan:

https://www.euskadi.eus/berrantolaketa/akoplamendu_prozesua/web01-tramite/eu

4. artikulua.- Adierazitako epean, funtzionarioek alegazioak egin ahal izango dituzte fase honi buruz. Alegazioak lehen aipatutako estekaren bidez aurkeztu beharko dira.

5. artikulua.- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA